

INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA. 2020KO UZTAILA


Euskal AEko industria-jarduera 12,4 % murriztu da 2020 uztailan

Aurreko hilabetearekin alderatuta, 2020ko ekaina, industria-sektoreak % 3,0 egin du gora ekoizpenean

Eustaten datuen arabera, eta lan-egutegiko termino homogeneoetan, Euskal AEko industria-produkzioa % 12,4 murriztu da 2020ko uztailan, 2019ko hil beraren aldean. Urte arteko jaitsiera hori txikiagoa da martxotik aurrera —hil hori barne— izandako jaitsierak baino.

Urtaroen eragina zuzenduta, % 3,0 hazi da Euskal AEko industria-produkzioa 2020ko uztailan aurreko hilarekin, ekainarekin, alderatuta.

2020ko lehen zazpi hilabeteetako balantzea industria-jardueraren % 16,2ko uzkuertze metatuarekin itxi da.



2020ko uztaileko indizearen bilakaera, 2019ko uztailearekin alderatuta, negatiboa da industria-sektore handi guztietan. *Kontsumo-ondasunak*, oro har, % 3,9 jaitsi dira urte batetik bestera; izan ere, *Kontsumo-ondasun iraunkorrak* % 8,3 jaitsi dira, eta *Kontsumo-ondasun ez iraunkorrak* % 2,9. *Kontsumo-ondasun iraunkorrak* epigrafean altzariak, etxeko tresnak edo produktu elektronikoak fabrikatzeko jarduerak daude. Elikagaien fabrikazioa, prozesatzea eta kontserbazioa, garbiketarako eta higienarako produktuen fabrikazioa eta jantziak egitea dira, besteak beste, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* sektore handiaren barruko jarduerak.

Bestetik, *Ekipo-ondasunak* % 10,6 jaitsi dira; *Bitarteko ondasunak*, aldiz, % 12,6 murritzuta dira. Lehenengoen artean, motordun ibilgailuen fabrikazioa, tren-makinen eta trenbide-materialen fabrikazioa edo aireontziak eta itsasontziak egitea dira nagusi; bigarrenen artean, berriz, metalurgiako eta metalezko produktuen fabrikazioko jarduerak, industria kimikoa edo kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa.

Energiak, azkenik, % 14,7 egin du behera, behin zuzenduta dagozkion egutegi-efektuak. Sektore horretako jardura azpimarragarrien artean energia elektrikoa hornitzea eta petrolioaren fintzea daude.

Hilabete arteko aldakuntzak, 2020ko uztaila 2020ko ekainaren gainean, berriz, bilakaera positiboa izan du industria-sektore handi guztietan, urtaroen ondorioak zuzendu ondoren. *Kontsumo-ondasunak*, oro har, % 2,6 hazi dira, bi portaera desberdinen konbinazioz: *Kontsumo-ondasun ez iraunkorrak* % 3,3 hazi dira, eta *Kontsumo-ondasun iraunkorrak* % 0,6 jaitsi. *Ekipo-ondasunak* % 3,3 igo dira, eta *Bitarteko ondasunak* % 2,4. Azkenik, *Energia* % 3,8 hazi da hilabete artean, behin zuzendurik urtaroen eraginak.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	-20,7
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-16,8
09 - Kautxua eta plastikoak	-4,2
13 - Makineria eta tresneria	-10,0
14 - Garraio-materiala	-2,4
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	-7,9
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-10,6
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-3,8

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Maila bereiziago batean, Euskal AEko industrian pisu handiena duten sektoreen artean, 2020ko uztailan jaitsiera handienak izan dituztenak, urtetik urterako aldaketetan, honako hauek izan dira: *Metalurgia eta produktu metalikoak* (% 20,7 behera), *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 16,8) eta *Material eta ekipo elektrikoa* (% 10,6), egutegiaren ondorioak zuzendu ondoren.

Lurraldeetan, Industria-produkzioaren indizearen uztailako urte arteko bilakaera negatiboa izan da hiruretan. Halatan, Bizkaian % 14,4ko beherakada izan da, Gipuzkoan % 11,9koa eta, azkenik, Araban % 10,1koa.

Hilabete arteko terminoetan, 2020ko uztaila 2020ko ekainaren aldean, behin zuzenduta urtaro-eraginak, ekoizpena % 5,2 hazi da Bizkaian, % 1,9 Araban eta % 1,6 Gipuzkoan.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2020ko Uztaila

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazionalizatuak	
	Uzt2020 / Uzt2019	A(Uzt2020) / A(Uzt2019)(*)	Uzt2020 / Eka2020	Eka2020 / Mai2020
Indize orokorra				
Euskal AE	-12,4	-16,2	3,0	17,0
Araba/Álava	-10,1	-17,4	1,9	25,6
Bizkaia	-14,4	-16,7	5,2	11,1
Gipuzkoa	-11,9	-14,9	1,6	17,8
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-3,9	-7,4	2,6	2,4
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-8,3	-15,5	-0,6	7,8
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-2,9	-5,5	3,3	1,3
Ekipo-ondasunak	-10,6	-16,8	3,3	9,1
Bitarteko ondasunak	-12,6	-20,6	2,4	21,8
Energia	-14,7	-5,7	3,8	-0,9

(*) 2020ko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2019eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

INFORMAZIO OHARRA

Egutegiaren ondorioak zuzentzeko eta serieak urtaro-ondoriorik gabe uzteko erabilitako modeloek COVID-19ak aztertutako aldagaietan duen eragina barne hartzen dute, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraituz.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik aparteko zirkunstantzia hauetan. Haiei esker, uztaileko indizea lagingaren % **86,28ko** estaldurarekin kalkulatu da (lagingaren informazioa abuztuan zehar jaso da).

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62